

/ Nabarmenezkoak

- > Pertsona migratuen ezohiko erregularizazioa (2. or.)
- > 339.000 euro Sarrikobason saneamendu- eta hornidura-sareak hobetzeko (2. or.)
- > Fadura kiroldegiko parke berria bi petanka pista daude (4. or.)



*Liburu Azoka (3. or.)


Antzerkia. Maiatzak 2, larunbata, 20:00etan Muxikebarrin, "Dulcinea", Paloma SanBasilio eta Julio Awadekin. 15 euro.

Kristalezko Kioskoa. Maiatzak 3, igandea, 13:30ean Muxikebarraren aurrealdean, kontzertuzikloaren hasiera. The Pockets taldearen saioa.

A-
GENDA

Udalak herritarrek gonbidatzen ditu Getxoko Babesleku Klimatikoaren Sareari buruzko proiektuaren aurkezpen-saioa

Bero-boladen aurrean herritarrei fresko egoteko baliabideak eskaintzeko asmoz, Udalak Babesleku Klimatikoaren Sarea definitzeko lanak abiarazi ditu. Hori dela eta, herritarren ikuspegia eta iritzia jasotzea beharrezkoa duenez, informazio-saioa antolatu du proiektu hori azaltzeko, datorren asteartean, apirilaren 28an, 19:30ean Romo Kultur Etxean.



Babesleku klimatikoaren sarea jasangarritasunaren arloko udal konpromisoaren parte da, Getxoko Klima Aldaketara Egokitze Planarekin (2022), Tokiko 2030 Agendarekin eta Klimaren eta Energiaren Tokiko Planarekin bat etorritik. Bereziki laguntzen du berdeguneak eta hiri itzala handitzen, herritarren erresilientzia hobetzen eta espazio publikoa klima baldintza berrietara egokitzen.

Klima-aldaketaren ondorioak gero eta ageriagoak dira gure inguruan

(uholdeak ibaietan eta itsas mailaren igoeratik, lehortek, bero-boladak eta abar). Horiek herritarren osasunean, batez ere herritar zaurgarriengan (adinekoak eta haurrak, esate baterako) eta gure hirietako egunerokoan duten eraginari aurre egiteko, ezinbestekoa da egokitzen neurriak hartzea eta herritarrei zuzendutako babes-eremuak sortzea. "Proiektu honen bidez, udalerriko gune freskoak identifikatuko ari dira — kanpoaldeko zein barnealdekoak —, udako egun beroetan herritarrentzat esku-

ragarri egongo direnak. Udal eraikinak, parkeak eta gune berdeak, besteak beste, sare horren parte izango dira, babesleku klimatiko izendatzeko beharrezko baldintzak betetzen badituzte", Carlos Sergio Ingurumeneko zinegotziak azaldu duenez.

Udalak landu duen klima-aldaketak Getxoko udalerrian egun duen eta etorkizunean izango duen arriskuaren diagnostikoan jasotzen den moduan, nahiz eta epe motzean hiriak bero-boladak jasateko duen

arriskua txikia izan, epe ertainera begira arrisku-maila ertaina izango da eta epe luzera arriskua handia izatera igaroko da (batez besteko tenperaturak 3°C-raino igo litezke mendean zehar, eta bero-boladako egunak hirukoiztu egin litezke). Arrisku honen esposizioa ertaina da Algotan eta Andra Marin, aldiz, handia; Neguri eta Areta auzoetan, berriz, esposizioa txikia da gaur egun.

Herritarrei zuzendutako lehen bilera horretan, babesleku klimatikoaren sarearen nondik norakoak azalduko dira eta hurrengo saioetan ekarpenak egiteko aukera emango zaie herritarrei. Helburua da guztion artean sare sendo, irisgarri eta erabilgarria osatzea, gure hiria muturreko beroaldien aurrean hobeto babesteko. Saioa bertaratu ahal izateko izena ematea beharrezkoa ez bada ere, aldeztatik egitea gomendatzen da ingurugiroa@getxo.eus helbidearen bidez.

2026ko Gau Beltz Gaztea ospatzeko gazteek proposamenak egin ditzaten parte-hartze prozesu bat abiatu da

Getxo Kulturak, Udaleko Partaidetza Zerbitzuarekin lankidetzan, parte-hartze prozesu bat ireki du Getxon erroldatutako 16 eta 34 urte bitarteko gazteek 2026ko Gau Beltz Gaztea ospatzeko jardura kultural eta artistikoen inguruko proposamenak egin ditzaten. Ekimen hori urriaren 31n ospatuko da. Proposamenak bigarren fase batean bozkatu ahal izango dira eta 2026ko Aurrekontu Parte-hartzaileetan jatorria duen proiektuaren aurrekontua, guztira, 150.000 eurokoa da.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru proposamen bidali ditzake maiatzaren 6ra arte zeugaz.getxo.eus atari digitalaren bidez, arlo hauen ingurukoak: arte eszenikoak (antzerkia, dantza, zirkua, *performance*-a, zuzeneko musika edo DJa), ibilbide tematikoak, ikusizko arteak eta arte plastikoak, literatura, ikus-entzunezko ikuskizunak, hiri-arte edo tailerrak, besteak beste. Proposatutako ekintza oro Getxon egin beharko da (barruko espazioetan zein aire zabalean), hilaren 31ko 19:00etatik azaroaren 1eko 2:00etara, betiere indarrean dagoen araudia errespetatuz.



Aurrez aurreko saioa

Maiatzaren 6an, deialdiaren epea ixtearekin batera, Fadura kiroldegiko TikiToki gunean aurrez aurreko parte-hartze saio bat egingo da 18:00etatik 20:00etara, Partaidetza Zerbitzuak antolatutako Zeugaz Egunaren baitan. Bertan, Gau Beltzaren inguruko proposamenak ere aurkeztu ahal izango dira, baita ordurako aurkeztutakoak ezagutu, eztabaidatu, osatu eta kontrastatu ere.

Hautaketa eta azken bozketa

Getxo Kulturako teknikariek jasotako eta onartutako proposamen guztietan oinarritutako zortzi proiektu aurkeztuko dituzte, guztira, hainbat irizpide kontuan hartuta (kudeaketaren eta ekoizpenaren bideragarritasuna eta bateragarritasuna hainbat arlotan indarrean dauden plan estrategikoen, hala nola euskara, gazteria, berdintasuna, ingurumena, droga-mendekotasunak eta abar). Gazteek zeugaz.getxo.eus plataforman bozkatu ahal izango dituzte, maiatzaren 28tik ekainaren 7ra. Uztailean, prozesuaren emaitza jakinaraziko da.



APIRILAK 23 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Kelly Reichardtaren "The mastermind" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

APIRILAK 24 OSTIRALA

Liburu Azoka. Areetako Geltokiko plazan. **Azoka.** Tokiko liburu-dendak eta liburutegi-zerbitzua. **Egitaraua.** Ipuin kontaketak, tailerrak, egileekin topaketak, literatura ibilbidea... Info.: <https://labur.eus/d8lunvic> Ordutegia: 10:30-14:00 eta 17:00-21:00h.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Zanbuila" (euskaraz), Lolak Kolektiboarekin. 8 euro.

Zine Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Asier Urbietaren "Faisaien irla" (gaztelarazko azpitoluekin). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

APIRILAK 25 LARUNBATA

Liburu Azoka. Areetako Geltokiko plazan. 11:00-14:30 eta 17:00-21:00 h.

Nazioarteko Dantza Egun. **Evaristo Churruca kaia.** 12:00etan, barra klasikoaren erakustaldia (balleta). **San Nikolas plazan.** 18:00etan, ikasle gazte eta helduen dantzaldia. 19:30ean, jendeari irekitako klasea. Eguraldi txarra badago bertan behera utziko da.

Kontzertua. 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokiaren, "Vientos del norte", Trio Telemann hirukotearekin: Susana Zabaco (sopranoa), Emili Castelo-Branco (tronpeta) eta Patxi Garcia Garmilla (organoa).

APIRILAK 26 IGANDEA

Liburu Azoka. Areetako Geltokiko plazan. 11:00-14:30h.

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Elur errukiaren erregea". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Desioen arraina". Adin guztiak. 2,50 euro.

Antzerkia. Muxikebarrin, 19:00etan, "¿Quién soy yo?", Oihane Garcia, Egoitz Lucena eta Ivan Coralekin. 10 euro.

Kontzertua. Pio Lindegarden omenez. 19:30ean, Muxikebarrin, Uri Caine Trio. 12 euro.

APIRILAK 29 ASTEAZKENA

Versadas. Poesia kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Gabriel Celayaren lanari buruzko saioa.

Hitzaldia. 18:30ean, Urgull Zentroan, "Desinformación". Hizlaria: Juan Carlos Miguel de Bustos (EHUko irakasle emeritua). Antolatzailea: Agora EurGetxo. <https://eurgetxo.wordpress.com/>

APIRILAK 30 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Avelina Prataren "Una quinta portuguesa" (AJB). Adin guztiak. 3,50 euro.

MAIATZAK 2 LARUNBATA

Getxo Eszena Kalean. Areetako Geltokiko plazan. **Umorea, Clown eta Musika.** 18:30ean, "Bobas", Cia Jimena Cavalletirekin. **Dantza eta bertsolariak.** 19:30ean, "Suak Su", Meñakoz Dantza Taldearekin.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Dulcinea", Paloma San Basilio eta Julio Awadarekin. 15 euro.

MAIATZAK 3 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Arco" (gaztelaniaz). Adin guztientzat. 2,50 euro.

Kristalezko Kioskoa. 13:30ean, Muxikebarrin, The Pockets.

Antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Manual", Coriolis Compañía de Teatro de Objetos taldearekin. 6 euro.

- Alokagai pisu bat Astrabuduan.

Anbulatorioaren ondoan. 3 logela, gela, hall, sukaldea eta bainugela. 2. solairua. Ekainetik aurrera bizitzeko. Prezioa: 1.000 €. Tfnoa 618 60 24 67.

- **Salgai garaje** partzela Algortan, trastelekuarekin. Basarrate kalea 11. Auto ertainerako. Tel.: 618 24 67.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko-tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF > Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-irratietako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

getxoBerri

Pertsona migratuen ezohiko erregularizazioa

Udalak Gobelaurre Boluntariotza Zentroan dagoen migrazioen Harrera eta Arretarako udal Bulegoaren aholkularitza juridikoko zerbitzua indartu du, egoera administratibo irregularrean dauden pertsona migratuen ezohiko erregularizazioaren informazioan eta izapidetzean laguntzeko. Leku berean, zaurgarritasun egoerari buruzko txostenak egiteko dispositibo bat ere jarri du martxan, kasu batzuetan beharrezkoak baitira prozesu horretarako. "Gune horretan zaurgarritasun-txostenak errazten ditugu, eta eskabideak izapidetzeko laguntza juridiko espezializatua ere dugu. Gure helburua da Getxon bizi diren pertsona guztiak administratibozko irregularitasunak dakarren

zaurgarritasun-egoeratik atera ahal izatea eta gainerako herritarren eskubide eta aukera berberak eduki ahal izatea", nabarmendu du Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak.

Pertsona interesatuek aldeztu aurretiko hitzordua eskatu behar dute, telefonoz, 94 466 01 52 zenbakian, astelehen eta asteartetan 09:00etatik 13:00etara, asteazkenetan 15:00etatik 19:00etara eta ostegunetan, goizez zein arratsaldean. WhatsApp bidez ere eskatu ahal izango dute, 747 42 42 87 zenbakian. Aurrez aurreko arreta ostiral honetan, apirilak 24, hasiko da.

Gainera, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioak

hainbat bide gaitu ditu (hitzorduekin 060 telefonoaren bidez), hala nola Posta-bulegoak, Gizarte Segurantzako bulegoak, online eta hirugarren sektoreko erakunde laguntzaile batzuen bidez, horien artean, Getxon Mujeres con Voz, RECEX zerrendan sartutakoa, eta regularizacion@mujeresconvoz.com emaila eta 655603809 WhatsApp zenbakia abian jarri dituena.

Bestalde, Udalak bi taldeko informazio saio ere antolatu ditu. Lehenengoa apirilaren 29an izango da, asteazkenean, 18:00etan, Getxo Elkartearen (Areetako Ogoño 1) eta bigarrena maiatzaren 8an, ostiralean, 10:00etan, Algortako Kultur Aretan (Villamonte A-8).

339.000 euro Sarrikobason saneamendu- eta hornidura-sareak hobetzeko

Udalak 339.020 euro inbertitu ditu Sarrikobaso kaleko inguruan saneamendu- eta hornidura-sareak hobetzeko 1. fasean. Obra astelehenean hasi zen, 15 astez luzatuko da eta trafiko-mozketa puntualak izango dira. Hiru faseeta-

ko lehena da eta Salsidu eta Redentor kaleen artean jardungo da sare bereziak ezartzeko, eta Bidezabaleraino hedatuko da hornidura-sarea berritzeko. Gaur egun, eremu askotan, sarea unitarioa da, eta horrek arazoak sortzen

ditu, batez ere eurite handietan. Jarduketari esker, hondakin-uren eta euri-uren bilketa optimizatuko da, herritarrentzako zerbitzua hobetuko da, aldi lehorretan usain txarrak saihestuko dira eta gainezkatzen arriskua murriztuko da.

Euskara ikasteko, erabiltzeko eta sustatzeko diru laguntzak

Udalak euskara ikasteko, erabiltzeko eta sustatzeko diru-laguntzen deialdia onartu du, eta horretara 51.627 euro zuzendu ditu, sei ildotan banatuta. Lehena, 27.687 euroekin, baliabide ekonomiko nahikorik ez duten getxotarrek euskara ikasteko izango da; bigarrena, 10.290 euroekin, gazteen eta umeen (6tik 15 urtera bitartean jaiotakoak, biak barne) matrikula ordaintzera laguntzeko, eta hirugarrena, 1.050 euroekin, Udaleko eta erakunde autonomotako langileek eta zinegotziek euskara ikasteko. Hiru kasuetarako eskaerak aurkezteko epea urriaren 12an amaituko da.

Era berean, 4.200 euro izango dira auto, moto eta ziklomotorren gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egiten duten gazteentzat. Beste 1.050 euro izango dira elkarteetako aisialdiko begirale eta zuzendari agiria euskaraz lortzeko, eta 7.350 euro olanak eta ibilgailu komertzialak errotulatzeko. Hiruren eskaerak aurkezteko epea azaroaren 2an amaituko da.

Eskola-orduz kanpoko eta euskal kulturako jarduerak

Maiatzaren 30era arte zabalik izango da euskara sustatzen duten eskola-orduz kanpoko jardueren proiektuak aurkezteko epea, eta horietarako 42.000 euro onartu dira.

Bestalde, Udalak beste 48.858 euro onartu ditu euskal kultura sustatzeko jarduerak egiten di-

tuzten erakunde edo enpresentzat. Jardueren artean daude San Juan jaia, Olentzero, Korrika, Getxo eta Euskal Herria gazteen artean ezagutzera emateko... Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 4ra arte egongo da zabalik, Olentzerorako izan ezik, hori urriaren 20an amaituko baita. Eskaera guztiak ahal dela Administrazio Elektronikoko Bulegoaren bitartez aurkeztu beharko dira. Informazio gehiago: <https://labur.eus/omvnojq9>



INFORMAZIO-SAIOA

ETXEKO LANAK: Konponbidea prebentzioa da

Lourdes Iscar Reina, Osalan Laneko Seguratasun eta Osasunerako Euskal Erakunde zuzendari orokorra

Javier Sánchez de La Fuente, Osalaneko prebentzio-teknikaria

Apirilak 30, ostegunetan

Getxo Elkartearen - Ogoño 1, Areetan

17:00ean Harrera
17:30etan Informazio saioa

Eman izena hemen: <https://forms.gle/cneE3beGvviBTbjw9>





Argazkia: Txema García

Herriko liburu-dendak eta udal liburutegiak herritarrekin topatuko dira Liburu Azokan

Areetako Geltokiko plazan ospatuko da asteburu honetan (apirilak 24-26) Liburu Azoka. Hiru egunez, espazio publikoa istorioak ezagutzeko, gure irakurgai gogokoekin topo egiteko eta argitaletxeen azken nobedadeekin harritzeko leku bihurtuko da, guztiak %10eko deskontuarekin.

Aurten ere, Areetako Geltokiko plazan izango da merkataritza-gunea, eta bertako liburu-dendak eta udal-liburutegiak herritarrekin topatuko dira.

Jardueren programazioari dagokionez, ostiralean, hilak 24, hasiko da, 10:30ean, Irakurketa publiko jarraituarekin, Getxoko ikasleen eskutik (elebiduna), eta txapa tailer batekin. Arratsaldean, 17:30ean, haurrentzako jolasak eta tailerrak izango dira, eta, 19:00etan, hitzaldia Unai Eloorriagarekin (elebiduna).

Larunbatean, hilak 25, Ramiro

Pinillari buruzko ibilbide literario batekin hasiko da, 10:30ean San Nikolas plazatik hasita Getxo barrera (igandean errepikatuko da, hilaren 26an). 11:00etatik aurrera, RKEEn, irakurketa heziketa tailerra maskotarekin, Storytime ingelesez, eta haurrentzako jolasak eta tailerrak izango dira. 19:00etan Prospero antzerki taldeak *Printze giltzapetua* antzeztuko du, euskaraz.

Igandean, hilak 26, 11:30ean, bere aleak sinatuko dituzten idazleekin ohiko topaketa egingo da. 13:00etan, Maricuela konpainiak familia-ikuskizuna eskainiko du, Fernando Dieguez-en musikarekin: *Con la música a esta parte* (gaztelaniaz). Azokak 14:30ean itxiko ditu ateak. Programazio osoa hemen kontsulta daiteke: <https://labur.eus/sow60lzi>



Dantzaren Nazioarteko Eguna

Getxok Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko du igande honetan, hilak 25. 12:00etan, Evaristo Txurruka kaiko barandan, barra klasikoaren erakustaldia izango da (balleta). Arratsaldean, San Nikolas plazan, ikasle gazte eta helduen erakusketa bat egongo da, 18:00etan, eta klase bat jende guztiari irekia, 19:00etan. Eguraldi txarra egiten badu, programatutako jarduerak eten egingo dira.

“¿Quién soy yo?”, nerabezaroaren zurrumbilo emozionala

Oihane Garcia aktorea, Egoitz Lucena eta Ivan Coralekin batera, *¿Quién soy yo?* antzezlanaren protagonistak dira. Muxikebarrin taularatuko dute, apirilaren 26an, igandea, 19:00etatik aurrera. Nerabezaroaren zurrumbilo emozionalean barneratzen den ikuskizuna da. Istorio intimoa eta zintzoa, zarataren erdian hazteko eta norberaren nortasuna aurkitzeko erronkari buruzkoa. 15 urtetik gorakoentzat gomendatua, 10 eurokoa da sarreraren prezioa.



“Zanbuila” edo bidaia intimo batetik sortzen den sororitatea

Lolak Kolektiboa konpainiak *Zanbuilak* antzezlanaren aurkeztuko du ostiral honetan, apirilak 24, arratsaldeko 20:00etan, Muxikebarrin. Muntaiian, Esti Curiel, Amaia Ruiz de Galarreta eta Irene Hernando aktoreek itsasoari lotutako emakumeen bizitza eta krisi existentzial garaikidea aztertzen dituzte. Itsasoa metafora eta agertoki gisa erabiltzen dute bakardadea eta belaunaldien arteko loturak bezalako gaiak lantzeko. Sarrera: 8 euro.



“Los días se hacen solos”, nola zoriak bizitza desordenatu dezakeen instant batean

Garbiñe Salaberria idazleak bere lehen eleberria aurkeztu du Algortako Kultur Etxean, Villamonten: *Los días se hacen solos*. Bertan, zoriak eta ustekabeko ondorioek bizitza instant batean nola desordena dezaket aztertzen du. Protagonistak zazpi emakume eta bederatzi gizon dira, eta kongresu batera joango dira Bilbora. Beren itxaropen eta sekretuekin iristen dira, baina errealitateak plan desberdinak inposatzen ditu azkenean. Istorio pertsonalak eta beren etxeetatik urruntzeko arrazoi sakonak ezkututzen dituzte, beren erabakiek — edo kasualitateak — ustekabeko ondorioak eragiten dituzten egoerei aurre eginez.



Uri Caine Trio da protagonista Pío Lindegaarden omenezko jazz kontzertuan

Igandean, apirilak 26, Uri Caine Trio Muxikebarrira iritsiko da Pío Lindegaarden omenezko kontzertuan parte hartzeko. Pío Lindegaard 1975ean hil zen, eta Getxo Jazzaren bultzatzaile, laguntzaile eta enbaxadore nagusietakoa izan zen. Errezitaldia 19:30ean hasiko da, eta kontzertu paregabea eskainiko dute. Tradizioaren eta modernitatearen, emozioaren eta arriskuaren, memoriaren eta berrasmentaren arteko zubiak eraikitzeko gai den sortzailearen unibertso musikalean murgilduko da publikoa. Bere proposamenean rhythm & bluesa, gopela, jazz libre eta musika herrikoia garaikidea uztartzen dira. Sarrera: 12 euro.

Ekipamendua, 15.000 euro pasatxoko inbertsioarekin, udalerriko adinekoen eskaera baten ondorioz sortu da

Fadura kiroldegiko parke berriari bi petanka pista daude

Fadurako udal kiroldegiko kanpoaldean, parke berriari, petankara jokatzeko bi pista daude pasatzen astetik. Ekipamendu horretan 15.000 euro pasatxoko inbertsioa egin du Getxo Kirolakek, eta udalerriko adinekoek egindako eskaera baten ondorioz sortu da. Hala, kiroldegia eraldatzeko eta hobetzeko *Thinking Fadura* prozesuaren testuinguruan, adinekoen kolektibo horrekin batera lan egin du kirolaren udal erakunde autonomoak, haien beharrei erantzuteko eta espazio publikoaren diseinuan parte-hartze aktiboa sustatzeko.

Pista berriari inaugurazio ekitaldian, Amaia Aguirre alkateak eskerrak eman zizkien adinekoen elkartei "*pistak eraikitzeke orduan izan duten inplikazioagatik eta Getxo Kirolak-i eskaini dioten laguntzagatik. Badakigu gure udalerrira erreferente bat dela zahartze aktiboarekin eta jardueren fisiko osasungarriarekin zerikusia duen guztian. Pista berri*



hauek adinekoek zuzendutako ekipamenduari gehitzen zaizkie, baina getxotarren belaunaldien arteko topaketa indartzen ere lagunduko digute, beste leku askotan gertatzen den bezala, petankak adin ezberdinetako pertsonak ere erakartzen dituelako".

Bi pisten lurzorua hareazkoa da (eta horien neurriari dagokionez, 15 metroko luzera eta 4 metroko zabalera dituzte) Fadurako kanpoaldean daude, kiroldegiko kanpoko kantxan ondoan, arestian aipa bezala, parke berriari. Instalazio berri honetatik hurbilen dauden sarbideak TikiToki Zentroaren ondoan dagoena eta duela gutxi Maria Ibarra plazaren aurrean ireki dena dira.

Getxo Kirolak-eko abonatu-txartelarekin sartzea beharrezkoa ez den parkeko gune batean dagoenez, interesa duten pertsona guztiek libre eta doan gozatu ahal izango dute ekipamendu horretaz.

Punta Begoña Fundazioa eta Fangaloka, "Enpresa turistiko adimenduna" aitortzen lortu duten lehen bi entitate getxotarrak

Getxoko bi entitatek, Punta Begoña Fundazioak eta Fangalokak, *Enpresa Turistiko Adimenduna* (ETI) bereizgarria lortu dute ofizialki, Euskadiko Turismoaren Kode Etikokoaren esparruan zerbitzu turistikoaren kudeaketan berrikuntza, jasagarritasuna eta etika integraztea saritzen duen saria. Sari berri horiekin, Getxok, helmuga gisa duen lehiakortasuna hobetzeaz gain, kalitate handiko esperientzia bermatzen du bisitariarentzat, gardentasunean eta jasagarritasunean oinarritua.

Aitortpen hori ez da gertaera isolatu bat, Getxoko enpresa-ehunaren konpromiso iraunkor baten emaitza baizik. Iaz, udalerriko 40 en-



presak parte hartu zuten aktiboki Kode Etikokoaren programan, kode etikoaren bereizgarri bat lortuz eta, horrekin, egungo turismoak eska-

ertzen dituen erantzukizun eta digitalizazio estandar berrietara egokitzeko sektoreak duen borondatea erakutsiz.

Elisabete Basañez Turismo zinegotziak sari hauek udalerritarrentzat duten garrantzia azpimarratu du. "*Aintzatespen horiek gure enpresen ahaleginaren eta profesionaltasunaren isla dira, ulertu baitute turismoaren etorkizuna nahitaez lurralde-adimenean eta konpromiso etikoan oinarritzen dela. Bi erakunde berrik bereizgarri hori lortzeak, iaz 40 enpresarekin izan genuen parte-hartze altuarekin batera, Getxo destino bizia, modernoa eta, batez ere, bere ingurunearekin eta bisitatzen gaituztenekin arduratsua dela berresten du".*

Turismoaren Kode Etikokoaren programari atxikitako enpresak: <https://labur.eus/tglaozuv>



Finlandiako ikasleei harrera

Mihaela Jilavu Hezkuntza zinegotziak Finlandiako Nurmeksen Lukio ikastetxeko ikasle talde bat hartu du aste honetan udaletxean. Egun hauetan Julio Caro Baroja Institutuarekin trukea egiten ari da. 16-17 urteko 10 gazte hartu zuten parte ekitaldian, Getxoko ikasleekin eta bi ikastetxetako irakasleekin batera. Erasmus programa batean ari dira lanean, ingelesez, *Europar Batasunaren nortasuna bultzatuz* izenburupean.

Merkatarien eta ostalarien elkarteentzako laguntzak

Maiatzaren 17ra arte aurkeztu ahal izango dira eskaerak merkataritza- eta ostalaritza-elkartei zuzendutako 2026ko Dinamizazio Ekonomikorako Laguntzak jasotzeko. Udalak, Ekonomia Sustapena Arloaren bidez, 170.000 euro bideratu ditu elkarte horien jardueren sustatzeko eta haien zeregina indartzeko.

Juanma Gonzalez Getxolan-Ekonomia Sustapeneko zinegotziak adierazi duenez, "*laguntza hauen helburua da tokiko elkarten, merkataritzaren eta ostalaritzaren jardue-*

ra sustatzea, Getxoko dinamizazio ekonomikoan eta sozialean funtsezko eragile gisa duten zeregina indartzeko. Udalak konpromiso sendoa du Getxoko enpresa- eta elkarte-sarea garatzeko eta indartzeko, eta aurrera egiten jarraitu nahi dugu tokiko ekonomia bultzatzeko bidean".

Dirulaguntzen bi ildo daude: 1. ildo (120.000 euro), ekonomia dinamizatzeko jarduerak egiteko eta 2. ildo asoziazionismoa mantentzeko eta sustatzeko. Informazio gehiago: <https://labur.eus/zsoutbal>